

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Deiak formalizatzea, bitarteko langileak izendatzeko, COVID-19 koronabirus kasuak agertu izanak eragindako osasun krisiaren ondorioz. Aldi baterako eteten da azaroaren 18ko 46/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita aldi baterako zerbitzuak emateko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea

Nola gurean COVID-19 koronabirusak kutsatutako kasuak dauden, eta nola aurreikusi den gero eta kasu gehiago egongo direla, eta horri erantsi behar zaiola erakunde honen jardun eremuari dagozkion zentro eta zerbitzuen erabiltzaileak bereziki zaugarriak direla, haiek behar bezala zaintzeko eta osasuna babesteko daukaten funtsezko eskubidea bermatzeko, ezohiko neurriak hartu behar dira kutsadura hori saihestu edo, hala badagokio, haren irismena murrizteko. Eta betekizun hori bera zor diegu erakundeko langileei ere.

Toki itxi batean, adinekoak, desgaituak eta, funtsean, zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaile bereziki zaugarriak edukitzeak handitu egiten du aire bidez kutsatzen den edozein gaixotasunerako arriskua, batez ere jende horretatik askok bestela ere arriskua daukatelako arnas gaixotasun komunak izateko.

Hortaz, proposamen honen atzean dagoena da premia dagoela artatze langileak eta erabiltzaileak babesteko.

Prebentzio neurri garrantzitsuenetatik bat da ahalik eta gehien murriztuko dela langile kontratuen txandakatzea, halako moldez non lantoki bakar batean eman ahal izango baitute zerbitzua.

Horiek horrela, langileen ahalik eta txandakatze gutxien egon dadin, abian jarri behar dira neurri batzuk gailendu behar zaizkionak, modu ezohikoan eta aldi baterako, azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduan ezarritakoari, zeinaren bidez onesten baita aldi baterako zerbitzuak emateko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea, eta batez ere foru agindu horren 9. artikuluan ezarritakoari, non izendatze prozedurak arautzen baitira; izan ere, ez dira eraginkorrak izango geroko xedapen zatian jasotzen denaren aurka badoaz. Horrek iraungo du osasun alertak dirauen bitartean.

Langileen zentrorik zentrorako eta zerbitzutik zerbitzurako mugikortasuna mugatzeko neurri horiek hartu ahal izateko, berariazko zerrendak ezarriko dira zentro bakoitzerako, eta zerrenda horietan egongo dira foru agindu hau onestean zentro horietako bakoitzean lanean ari diren bitarteko langileak, zeinei deitu ahalko baitzaie kasuan kasuko zentroko premiei erantzuteko.

Zentro jakin bateko zerrendan ez bada inor geratzen, dei gehiago egingo dira lan poltsaren hurrenkeraren arabera, eta pertsona horiek sartuko dira izendatu diren zentroko berariazko zerrendan.

Langileen txandakatzea murrizteko, lanaldi osoa baino gutxiagoko zerbitzuak emateko izendatu den pertsona orok, berdin diolarik zergatik eskatu zuten egoera hori (LPZn hala ezarrita dagoelako, lanaldi murrizketa baten ordeko ari direlako, borondatez eskatu dutelako murrizketa...), lanaldia luzatu ahalko dute iraupen jakin bateko kasuan kasuko gorabeherei erantzuteko. Kasu horietan guztietan, nahitaez jakinarazi beharko zaio Langileen Arloari, egin beharrekoa egin dezan egoera hori nominan eta gizarte aseguruetan islatzeko.

Eremu publikoko langileen hautaketak arautu behar dituzten merezimendu eta gaitasun printzipioetan ezohiko neurri honek izan ditzakeen eraginak murrizteko, araudiaren arabera 9.3. "Izendapena hobetzea" artikulua aplikatuta egin behar diren izendapenen orde, egitekoen pilaketen ondoriozko izendapenak egingo dira, egoera honek dirauen bitartean, eta 2 hilabete iraungo dute, nahiz eta epe hori luzatu egin ahal izango den legeak jasoriko 6 hilabetera arte.

Bat etorri enplegatuko publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren IV. kapituluaren aurreikusitakoarekin, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen VI. tituluari dagokionez, bete da legegintzako errege dekretu horrek 37. artikuluan aipatzen duen nahitazeko negoziazioa.

Bat etorri Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoarekin, zeinak onesten baitu Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Egituraren eta Funtzionamenduaren Araudia, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40.11, 97.e) eta 98.3 artikuluekin lotuz, Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 3/1989 Legearen 33. artikuluari dagokionez (azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua),

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldi baterako berriazko lan zerrendak ezartzea zentro bakoitzerako, eta zerrenda horietan egongo dira foru agindu hau indarrean sartzean zentro horietako bakoitzean zerbitzu emateko izendatuta dauden bitarteko langileak. Zerrenda horiek erabiliko dira osasun larrialdi honek dirauen bitartean, zentro bakoitzeko premia guztiei erantzuteko.

Bigarrena. Beharrezkoa bada, zentro jakin bateko premiek hala eskatzen dutelako, berriazko zerrenda osatzen duten pertsonak baino gehiago izendatzea. Dei horiek egingo dira berriazko zerrenda batean ere ez dauden pertsonak lan poltsan duten hurrenkeraren arabera, eta pertsona horiek sartuko dira izendatu diren zentroko berriazko zerrendan.

Hirugarrena. Berriazko zerrenda bakoitzean egin beharreko izendapenak hautagai bakoitzaren puntuazio osoaren arabera baino ez dira egingo, eta ez dira kontuan hartuko beste aldagai batzuk, hala nola zein zona nahiago duten, zein lanaldi, eta hizkuntza eskakizunak egiaztatuta dauzkaten.

Laugarrena. Ez da izendapenik egingo lanpostua hutsik egoteagatik edo antzeko beste egoera batengatik, eta, horren ordez eta aldi baterako, lan pilaketan ondoriozko izendapenak egingo dira; 2 hilabete iraungo dute, nahiz eta epe hori luzatu egin ahal izango den legeak jasoriko 6 hilabetera arte.

Bosgarrena. Langileen Arloari jakinarazi ondoren, lanaldi osoa baino gutxiagoko zerbitzuak emateko izendatuta dagoen pertsona ororen lanaldia luzatu ahalko da, iraupen jakin bateko kasuan kasuko gorabehera erantzuteko. Berdin dio zergatik eskatu zuten lanaldi osoa baino gutxiagoko zerbitzuak emateko egoera (LPZn hala ezarrita dagoelako, lanaldi murrizketa baten ordezko ari direlako, borondatez eskatu dutelako murrizketa...).

Seigarrena. Etetea foru agindu honek xedatzen duenaren aurka doazen azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduko alderdi guztiak, osasun alerta honek dirauen bitartean. Foru agindu horren bidez, onspena ematen zaio aldi baterako zerbitzuak emateko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzeari.

Zazpigarrena. Zuzendaritza-Kudeatzailletza gaitzea foru agindu hau gauzatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzeko.

Zortzigarrena. Onetsi eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra foru agindu honek, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 25a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta GOFeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Politiken zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ